

Arabako ESIaren 2023 Plan Estrategikoa 2025



Osakidetza

ARABAKO
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
ARABA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD



Osakidetza

ARABAKO
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
ARABA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD



Lan hau Creative Commons lizentzia bati lotuta daude. **Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa (CC BY-NC-SA 4.0).**

Erabiltzaileek lanaren kopia zuzenak bakarrik kopia, banatu, erakutsi eta erreproduzitu ditzakete helburu ez komertzialekin eta lizentzian zehazten diren mugen barruan.

📄 **Aitortu:** Aitortza egokia egin behar duzu, lizentziaren esteka eman behar duzu eta aldaketak egin diren adierazi behar duzu. Zentzuzko edozein modutan egin dezakezu hori, baina ez duzu aditzera eman behar lizentzia-emaileak zu edo zure erabilera onesten duenik.

🚫 **Ez-komertziala:** Materiala ezin duzu erabili merkataritza-xedeetarako.

🔄 **Partekatu berdina:** Materiala nahasten, eraldatzen eta horretan oinarrituz sortzen baduzu, jatorrizkoaren lizentzia berarekin banatu beharko dituzu zure ekarpenak.

Informazio gehiago lortzeko eta lizentzia osoa ikusteko:

<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/deed.eu>

Aurkibidea

Aurkezpena	4
Misioa	6
Ikuspegia	6
Balioak	7
Arrakastarako funtsezko faktoreak	7
Kode etikoa	8
Ildo estrategikoak	12
Osasuna sustatzea eta gaixotasunak prebenitzea, eta bizitzan zeharreko ikuspegia txertatzea eta pertsonen zein komunitatearen erantzunkidetasunetik eta parte-hartze aktibotik aurrera egitea	15
Kronikotasuna eta morbidimortalitatea jorratzea, eta arreta handiagoa jartzea euskal herritarren bizi-itxaropenean eta -kalitatean	19
Osakidetzaren bikaintasuna lortzeko funtsezko elementuak izatea humanizazioa, balioan oinarritutako arreta, zainketen bikaintasuna, kalitatea eta pazienteen segurtasuna	23
Gobernantza-eredua sendotzea, jasangarritasuna, emaitza onenak eta kontu-ematea berma ditzan, egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko	27
Osasun-emaitzekin eta ezagutza sortzearekin konprometitutako pertsonak, taldean lan eginez	31
Berrikuntza eta ikerketa, osasuneko balio-sortzaile gisa	35
Glosarioa	38
Elkarlanean aritu dira	40

Aurkezpena

Lankide estimatuak:

Oso pozgarria da niretzat Arabako ESlaren 2023-2025 aldirako Plan Estrategikoa aurkeztea, eta are pozgarriagoa da gure ESiko dozenaka profesionalen talde-ahaleginaren emaitza delako. Profesional horiek plana idazten eta orrazten laguntzeko konpromisoa eta eskuzabaltasuna izan dute, eta beren ikuspegi ordainezina ekarri dute dokumentu honetara.

2023-2025 Plan Estrategiko hau, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak duela hilabete gutxi aurkeztu zuenarekin bat datorrena, Lehen Mailako Arretako Zerbitzu, Atal, Espezialitate edo Unitate bakoitzeko urteko kudeaketa-planen bidez edo kudeaketa klinikoko akordioen bidez zabalduko da. Bertan zehaztuko dira helburuak lortzeko ekintza zehatzak, ekintza horien betetze-maila balioetsi eta neurtzeko adierazleak, eta horietako bakoitzaren arduradunak. Horrela, datozen urteetarako gure lana egituratzeko oinarritzko tresna izango da, eta lan hori osasun-arloko emaitzak neurtzera bideratuko da.

Gure ustez, gainera, dokumentua lagungarria izango da gure osasun-erakundea are gehiago estimatu eta balioetsi dezaten pazienteek, haien senideek eta Arabako gizarte osoak, bai eta Osakidetzaren sarean eta sare horretatik kanpo **giza arreta** profesional eta bikainagatik aintzat har dadin ere, zeinak **pertsonen bizitzari balioa** ematen dion eta **profesionalak zaintzeari** lehentasuna.

Gure erakundeko giza taldea osatzen duzuen guztioi nire esker ona adierazten dizuet; izan ere, ziur nago zuen lankidetzarekin ezarritako helburuak beteko ditugula, gure eguneroko zereginean balio eta kode etiko batzuk jarraituz, gure pazienteei eta gizarte osoari ahalik eta osasun-arreta onena emateko.

Eskerrik asko bihotz-bihotzez.



Jose María Pérez Ramos

Arabako ESiko zuzendari-gerentea



Uribarri Ganboa

Misioa

Arabako ESlaren xedea da osasuna sustatzea eta gaixotasuna prebenitzea, eta esleitutako biztanleriari ahalik eta laguntza asistentzial integral onena ematea, ekitate-, eraginkortasun, kalitate- eta elkartasun-printzipioak aintzat hartuz, eta pazienteei eta gizarteari balioa emanez.

Eta hori posible da ESlan lan egiten dugun pertsona bakoitzaren inplikazioari, konpromisoari eta erantzukizunari esker, jardun kliniko egokienarekin, eta lan-ingurune atsegin batean, non pertsonak zaintzen diren, eta sormena, talentua, prestakuntza, irakaskuntza, ezagutzaren kudeaketa eta berrikuntza sustatzen diren.

Ikuspegia

Erakunde bikaina eta berritzailea, osasungarria eta jasangarria izatea, eta harro egotea bai artatutako pertsonak, bai haien senideak, bai profesionalak, eta erreferente izatea kalitate zientifiko-teknikoan, osasun-emaitzetan, humanizazioan eta profesionalen zaintzan.

Balioak

Profesionaltasuna

Gizatasuna

Jokabide etikoa

Taldeko lana

Efizientzia

Arrakastarako funtsezko faktoreak

- Arreta gizatiarra eta pertsonalizatua.
- Komunikazioa eta parte-hartzea sustatzen duen lan-giroa, ezagutzaren sorrera, berrikuntza, sormena, talentua eta ekintzailtza, eta pentsatzeko denbora izatea erraztuz.
- Pazienteen alta ondoko zainketak, erakunde barruko eta erakunde arteko koordinazio eta lankidetzaren egokiarekin, eremu soziosanitarioa barne.
- Kudeaketa efizientea.
- Pertsonen aintzatespena.

Kode etikoa

Arabako ESIko profesionalen kode etikoaren edo erantzukizun etikoko arloen laburpena

1. Pazienteekiko konpromisoa

- 1.1. **Arreta behar duten pertsona guztiak berdin tratatzea.** Era berean, haien beharretara eta egoeretara egokitutako tratu bera ziurtatzea, eta arreta berezia jartzea pertsona zaurgarriengan, horretarako ekitatearen balioan oinarrituta.
- 1.2. Pazienteak gizatasunez, **zuzentasunez eta adeitasunez** tratatzea, haien egoerarekiko errespetuz, enpatiaz, apaltasunez eta hurbiltasunez, eta pertsonen osasun-esperientzia garrantzi handiena duten uneak bereziki zainduz.
- 1.3. Pazienteari buruzko **informazioaren konfidentzialtasuna** zaintzea eta hirugarrenei ez ematea haren berri, pazientearen baimenik gabe. Nori jakinarazi nahi dion galdetzea. Konfidentzialtasuna bermatzen ez duten lekuetan informazioa ez ematea.
- 1.4. Paziente bakoitzaren **intimitatea** errespetatzea prozesu asistentzial osoan, eta intimitate hori bermatuko duten gune erosoak sortzea.
- 1.5. Pertsonen **identifikazioa** erraztea, profesionalen artean, pazienteei eta haien familiei aurkeztea, adeitasunez eta hurbiltasuna erakutsiz.
- 1.6. Paziente bakoitzari bermatzea **erabakiak hartzen parte hartzeko** eskubidea, bereziki **aurretiazko borondateei** dagokienez, bai eta **tratamenduari uko** egiteko eskubidea ere. Adingabeekin eta ezgaituekin sentsibiltate berezia izango da, eta haien iritzia tutoreekin edo ordezkariekin batera aztertuko da.
- 1.7. Pertsonak informazioa jasotzeko duen eskubidea bermatzea, edozein prozedura diagnostiko edo terapeutiko aplikatu aurretik hark baimena eman ahal izateko: **baimen informatua**.
- 1.8. Erabiltzaileei behar bezala jakinaraztea Arabako ESlak eskaintzen dituen zerbitzuak. Haien **erreklamazioei** eta **iradokizunei** erantzutea, asistentzia-kalitatea hobetzeko aukera gisa, Paziente eta Erabiltzaileei Arreta Emateko Zerbitzutik (PEAZ) ez ezik, gainerako profesionalen aldetik ere bai, nola banaka, hala talde-hausnarketan.
- 1.9. Pazienteen eta senideen eskura jartzea Arabako ESIko Etika Asistentzialeko Batzordeari **kontsulta etikoak** egiteko aukera.

2. Pazienteen konpromisoa

- 2.1. Gainerako erabiltzaile edo pazienteak eta haien familiak, zaintzaileak eta laguntzaileak **errespetatzea**.
- 2.2. **Osasun-erakundeari laguntzea**, lan asistentziala ondo joan dadin.
- 2.3. Erakundearen zerbitzuak ematen dituzten **profesionalak errespetuz tratatzea**, lan asistentziala erraztea, eta instalazioak eta ekipamenduak behar bezala erabiltzea.
- 2.4. Osasun-egoerari eta lotutako beharrei buruzko **egiazko informazioa** ematea.

3. Profesionalekiko konpromisoa

- 3.1. **Baliabide egokiak** ematea profesional guztiek jarduera asistentziala modu autonomoan gara dezaten, pertsona errespetatuta betiere, gaixotasunaren bilakaera-prozesu osoan.
- 3.2. Erantzukizunaren, konpromisoaren eta autokritikaren zentzua bultzatzea erakundeko langileengan dituzten eskumenak gauzatzean.
- 3.3. **Profesionalen arteko errespetua, aintzatespena eta elkarrekiko konfiantza sustatzea**, gatazka-egoerak, tratu bidegabea edo laneko jazarpena saihesteko, eta, horretarako, elkar ezagutzeko, elkarrekin sortzeko eta integratzeko lekuak, dinamikak eta aukerak sortzea.

- 3.4. Gatazkak, kontraesanak, desadostasunak edo zalantzak **konpontzeko ekintzak** sustatzea, etengabeko prestakuntzan sartuta eta organo aholku-emaileak ezarrita.
- 3.5. Profesionalen artean autonomia, adostasuna eta lankidetzatza sustatzen duten lidergo-ereduak identifikatzea eta indartzea.
- 3.6. Profesional ororen **intimitatea** errespetatzea eta hari buruzko informazio pertsonalaren **konfidentzialtasuna** zaintzea
- 3.7. Langile guztien eta erakundeko maila guztien arteko **komunikazioa** bermatzeko eta informazioa zabaltzeko bide egokiak ezartzea.
- 3.8. Asistentzia-kalitatea eta -efizientzia **hobetzeko** eta biltzeko ekimenak bultzatzea eta babestea, bai eta profesionalak estrategia horietan inplikatzeko ere, betiere sormena eta berrikuntza sustatuz.
- 3.9. Profesionalen gaitasuna sustatzea, aldizkako **etengabeko prestakuntza** independentearen bidez eta kalitatea hobetzeko organoen bidez, eta ezagutza partekatzeko lekuak eta dinamikak sortzeko estrategiak sustatzea, balioei buruzko prestakuntza eta ezagutza barne.
- 3.10. **Taldeko lana** eta profesionalen arteko elkarrekiko errespetua erraztuko duen giroa garatzea.
- 3.11. **Integrazioa, teknologia berrien erabilera, ikerketa eta berrikuntza** bultzatzen dituzten metodologiak sustatzea.
- 3.12. Arabako ESIko Etika Asistentzialeko Batzordean langile guztiak arin sar daitezen sustatzea eta erraztea, sor litezkeen **gatazka etikoak kontsultatzen**.

- 3.13. Enplegua lortzeko ekitate-irizpideak bermatzea.
- 3.14. Laneko **segurtasun eta osasunaren arloan** babes eraginkorra bermatzea.
- 3.15. ESIko langileen bizitza pertsonala eta familiarra errespetatzea, eta **kontziliazio-neurriak** sustatzea, azken horren eta lan-erantzukizunen arteko oreka errazteko.

4. Profesionalen konpromisoa

- 4.1. Prozesu asistentzialetan **segurtasun klinikoa** denbora guztian bermatzea eta sustatzea, segurtasun positiboaren ildoan barneratuta, eta gertakariak jakinaraztea, prebentzio-neurrien efikazian eta zigor-neurririk ezean oinarritutako konfiantza ardatz hartuta.
- 4.2. Erakundearen misioarekiko, ikuspegiarekiko, balioekiko eta arrakastarako funtsezko faktoreekiko konpromisoaren eta leialtasunaren adibidea eskaintzea.
- 4.3. Zeregin profesionalean **erantzukizuna, konpromisoa eta autokritikarako gaitasuna** erakustea, beti eskura dagoen ezagutzarik onena erabiliz eta herritarrei ematen zaizkien zerbitzuen **kalitatea hobetzea** bilatuz.
- 4.4. Ohiko jardun profesionalean **berrikuntza** txertatzea, ezagutzak eta trebetasun teknikoak **aldizka eguneratzea** helburu hartuta, eta erakundean ezartzen diren teknika eta teknologia berrien ikaskuntzan jarrera proaktiboari eutsiz.

- 4.5. Erakundean lan egiten dutenen artean errespetua, konfiantza, lankidetzaz-espíritu eta adeitasuna mantentzea, **talde-lana** sustatuz.
- 4.6. **Ordutegiak eta lanaldiak betetzea**, Arabako ESIko zentroek eta zerbitzuek behar bezala funtzionatzen dutela bermatzeko.
- 4.7. Eskura dauden baliabideak **errespetuz eta efizientziaz erabiltzea**, pazienteen mesedetan, erabakiak irizpide eta zehaztasun zientifikoan oinarrituta.
- 4.8. **Laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko** arauak betetzea.
- 4.9. Erakundean pertsonak behar bezala **identifikatzen laguntzea**: ageriko txartelak eta uniforme egokiak.
- 4.10. Informazio- eta historia klinikoko sistemak erabiltzean **konfidentzialtasuna** bermatzea eta sarbide-gakoak isilpean gordetzea.
- 4.11. Pazienteei eta senideei **jarraitu beharreko prozesuen** berri ematea, bai eta gutxi gorabeherako iraupenaren eta planifikatutakoaren gainean gertatzen diren aldaketan berri ere.

5. Gizartearekiko konpromisoa

- 5.1. Arabako ESIaren Kode Etikoa zabaltzea, komunikatzea eta nork bere gain hartzea, profesionalek eta pazienteek partekatu dezaten.

- 5.2. Prozesu asistentzial osoan pazienteak artatzeko asistentziaren **jarraitutasuna eta koordinazioa** hobetzeko integrazio-estrategia egokiak sustatzea.
- 5.3. Arabako ESIan arriskutsuak izan daitezkeen jardueren ezaugarriak ezagutzea eta horiek **jarduera seguruak** izatea lortzeko asmoa zehaztea.
- 5.4. Nork bere burua zaintzeko eta osasuna kudeatzeko gaitasunak hobetzeko eta garatzeko organo eta ekimenetan **parte-hartze aktiboa sustatzea eta erraztea, bai banaka, bai taldean**.
- 5.5. **Hizkuntza-aniztasunarekiko konpromisoa** agerian uztea eta behar diren ahaleginak egitea pertsonen laguntza asistentziala euskaraz, gaztelaniaz edo beste hizkuntza eta/edo komunikazio-modu batzuetan emango zaiela bermatzeko, aukeratzen dutena kontuan hartuz.
- 5.6. Osasun-asistentziaren kalitatea etengabe hobetu dadin eta baliabideak zentzuz erabil daitezen sustatzea eta **efizientzia, eraginkortasun eta efikaziarako irizpideekin kudeatzea, sarbide-ekitatea bermatuz**. Herritarrak baliabideen erabilera egokiari buruz kontzientziazatzea sustatzeko konpromisoa hartzea.
- 5.7. **Erakundearen jarduera eta baliabideen gardentasuna** sustatzea, bai eta horien erabilerarena eta lortutako helburuena ere.
- 5.8. **Inguruarekiko eta ingurumenarekiko errespetua** sustatzea, energia aurrezteko, hondakinak birziklatzeko eta klima-aldaketaren aurka borrokatzeko politikak sustatuz.
- 5.9. Arlo hauen egokitzapen **etikoa** zaintzea: publizitatea, merkaturatzea, lehia-jardunak eta **hornitzaileekiko harremanen** gardentasuna.
- 5.10. **Herritarrei arreta ematea bermatzea**, edozein estaldura-sistema dutela ere.
- 5.11. **Ikerketa sustatzea eta erraztea**, herritarrei osasun-arreta hobe eskaintzea ekar dezakeelako. Ikerketa Klinikotarako Batzorde Etikoak (IKBE) zainduko du ikerketa-proiektuen segurtasuna eta egokitasun etikoa bermatzea.

* Arabako ESIko Etika Asistentzialeko Batzordeak landutako kode etikoa.

Ildo estrategikoak

Araba, kontrasteen eta aberastasun kulturalaren lurraldea, aparteko lekua da; izan ere, historiak modernitatearekin bat egiten du, natura berrikuntzarekin bat dator, eta aniztasuna da bere sendotasunik

handiena. Testuinguru horretan, Arabako ESIa Plan Estrategiko bat egiten murgiltzen da. Plan horrek, biztanleen osasuna sustatzeaz gain, euskal probintzia hori osatzen duten eremuak goratu nahi ditu, leku



Osasuna sustatzea eta gaixotasunak prebenitzea, eta bizitzan zeharreko ikuspegia txertatzea eta pertsonen zain komunitatearen erantzunkidetasunetik eta parte-hartze aktibotik aurrera egitea



Kronikotasuna eta morbidimortalitatea jorratzea, eta arreta handiagoa jartzea euskal herritarren bizi-itxaropenean eta -kalitatean



Osakidetzaren bikaintasuna lortzeko funtsezko elementuak izatea humanizazioa, balioan oinarritutako arreta, zainketen bikaintasuna, kalitatea eta pazienteen segurtasuna

bakoitzak bere nortasuna eta potentziala dituela aitortuz. Plana osatzen duten sei ildo estrategiko horien bidez, erakundeak bidaia bat egiten du probintzia horretako txoko

bakoitzaren osasuna eta ongizatea indartzeko, eta, betiere, bere eremuen arteko lotura bizirik mantenduz.



Gobernantza-eredua sendotzea, jasangarritasuna, emaitza onenak eta kontu-ematea berma ditzan, egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko



Osasun-emaitzekin eta ezagutza sortzearekin konprometitutako pertsonak, taldean lan eginez



Berrikuntza eta ikerketa, osasuneko balio-sortzaile gisa

1.

ildo
estrategikoa



Salburuko parkea

Osasuna sustatzea eta gaixotasunak prebenitzea, eta bizitzan zeharreko ikuspegia txertatzea eta pertsonen eta komunitatearen erantzunkidetasunetik eta parte-hartze aktibotik aurrera egitea

Arabako aniztasuna eta aberastasuna ohoratzeko dugun konpromiso etengabea, gure sei ildo estrategikoetako lehenengoan murgiltzen gara. Lerro hau gure uste sendoaren isla da, osasuna ez dela gaixotasunik eza soilik, bizitza osoan eraikitzen den altxor baliotsua baizik.

Haurtzaroko lehen urratsetatik helduaroaren bizitasunera eta zahartzaroaren jakituriara, etapa bakoitzak arreta eta zaintza merezi ditu. Bizitzaren bilakaeraren ikuspegiak gure estrategia bultzatzen du, eta aitortzen du osasunaren sustapenak eta gaixotasunaren preben-

tzioak konpromiso etengabea eta pertsona zein komunitate bakoitzaren behar aldakorretara egokitzeko modukoa izan behar dutela.

Illo estrategiko horretan, aurrera egiten dugu Arabako pertsonen eta komunitateen erantzunkidetasunean eta parte-hartze aktiboan oinarritutako ikuspegiak, ikuspuntu berriak aztertuz, bizimodu osasungarriak sustatuz, kalteberatasun-uneetan laguntza emanez eta pertsona bakoitza ahaldunduz bere osasunari buruzko erabaki informatuak har ditzan.

Helburu espezifikoak	Ekintzak
1.1. Bizi-ohitura osasungarriak eta zahartze aktiboa bultzatzea, eta, horretarako, Lehen Mailako Arreta indartzeko estrategia garatzea eta hedatzea, sektore anitzeko zein lankidetzako inguruneak sustatuz.	1.1.1. Kerik gabeko Erakunde Sanitarioen Euskal Sarearen barruko erakunde gisa berriz akreditatzea bultzatzea. 1.1.2. Elikadura osasungarriko programak berrikustea eta egokitzea, haurren obesitatearen aurkako borroka bultzatuz, "Mangolsen Bidaia" bezalako tresnen bidez. 1.1.3. Euskadin Suizidioa Prebenitzeko Estrategian laguntzea.
1.2. Erantzunkidetasuna, parte-hartzea eta koordinazioa sustatzea, osasuna sustatzeko eta gaixotasuna prebenitzeko jarduerak hedatze aldera. Lehen Mailako Arretaren gidaritzapean egingo da eremu asistentzial guztietan, eta Osasun Publikoarekin eta komunitatearekin koordinatuko da, herritarrei mezu komun eta koherente bat helarazteko.	1.2.1. Amagandiko edoskitzea sustatzea eta babestea. 1.2.2. Aho-hortzetako Osasunaren zorro berria egokitzea eta zabaltzea. 1.2.3. Arabako ESlaren estraneta bultzatzea, Arabako gizartearekin komunikatzeko bide gisa. 1.2.4. Herritarren artean sendagaien zentzuzko erabilerari buruzko kanpainak bultzatzea.
1.3. Osasun komunitarioa sustatzea, gizarteak osasunaren kudeaketa autonomoagoan eta asistentzia-dispositiboan erabilera arrazionalen parte har dezan lortzeko.	1.3.1. Osakidetzaren esku-hartze komunitarioko estrategia berria bultzatzea, eta Erizaintza Komunitarioaren figura ezartzea. 1.3.2. Garapenerako jardueren erakunde anitzeko biltegi zentralizatu bat sortzen laguntzea, osasun komunitarioaren eremuan lankidetzan aritzeko eta ezagutza trukatzeko. 1.3.3. Udalerrietako parte-hartze komunitarioko guneetan ESlaren presentzia sustatzea.

Helburu espezifikoak

1.4. Osasuna zaintzeko **herritarren ahalduntzea** gidatzea eta bultzatzea (ahalduntze-estrategian jasota dago, Paziente Bizia-Osasun Eskola programan, eta nabarmentzekoa da osasunaren prebentziorako programak gazteagoei zuzendu beharko litzaizkiekeela, arazoak izaten hasi aurretik eta bizitza osorako ohitura onak har ditzaketenean).

Ekintzak

- 1.4.1. Nork bere burua zaintzeko programak bultzatzea, Paziente Bizia eta Osasun Eskola indartuz.
- 1.4.2. Osasun-karpeta eta haren funtzionaltasunak pazienteen eta profesionalen artean zabaltzea, erabiltzen duten pertsonen ehunekoa handitzeko.
- 1.4.3. Lehen Mailako Arretan web-hitzordua bultzatzea.
- 1.4.4. *Online* komunikatzeko bide bat ezartzea kontsulta edo probetara bertaratu ezean horren berri emateko, eta, horrela, hitzordu gutxiago galtzeko.



2.

ildo
estrategikoa

Gesaltza-Añana

Kronikotasuna eta morbidimortalitatea jorratzea, eta arreta handiagoa jartzea euskal herritarren bizi-itxaropenean eta -kalitatean

Arabarren osasuna indartzeko egin dugun ahaleaginean, gure bigarren ildo estrategikoan murgildu gara. Kronikotasuna eta morbidimortalitatea ez dira estatistiketan soilik zenbakiak, pertsonen bizitzan eragina duten errealitateak dira. Ildo estrategiko horretan, erronka horiei irmo aurre egiteko konpromisoa hartzen dugu, bizi-itxaropena luzatzeaz gain, bizi izandako egun bakoitzaren kalitatea hobetzeko ere.

Kronikotasunari eta morbidimortalitateari heltzean, osasun-baldintza luzeei aurre egiten dietenei irtenbide berritzaileak eta laguntza

etengabea eskain diezaiekegulako ideiak inspiratzen gaitu. Horrek esan nahi du, arreta mediko espezializatua emateaz gain, gaixotasun kronikoen agerpena prebenitu edo atzeratu dezaketen bizimodu osasungarriak ere sustatu behar direla.

Elkarrekin, pertsonen bizi-itxaropena areagotu dezakegu, arreta integrala, babes emozionala eta baliabideak eskainiz, pertsonen modu betean eta esanguratsuan bizitzeko aukera emango dietenak, baita kronikotasunak izan ditzakeen erronken erdian ere.

Helburu espezifikoak

Ekintzak

2.1. Pertsonen (pazienteen) beharretan eta itxaropenetan oinarritutako laguntza bermatzea, **bizi-ziklo osoan prozesuak diseinatzen laguntzeko** eta pazienteen eta profesionalen esperientzia asistentziala hobetzea sustatzeko (plan espezifikoetan jasotako laguntza-ibilbideak: paziente pluripatologikoak, BGBK, BG, diabetesa edo ibilbide berriak, aringarriak, Onkologia Plana, gaixotasun arraroak, Osasun Mentaleko Estrategia, etab.).

- 2.1.1. Lehen Mailako Arretan fisioterapiaren ezarpena sendotzea.
- 2.1.2. 2023-2027 aldirako Euskadiko Zainketa Aringarrien Plana hedatzea.
- 2.1.3. 2018-2023 aldirako Euskadiko Onkologia Planaren hedapena osatzea.
- 2.1.4. Arreta Plan Indibidualizatuak (API) garatzen jarraitzea, eta plangintza partekatua (PP) eta aurretiazko borondateen dokumentua (ABD) bultzatzea.
- 2.1.5. Kalitate-agenden eredia Lehen Mailako Arretako unitate guzti-guztietan ezartzea eta finkatzea.
- 2.1.6. LMAko eskaerak kudeatzeko sistema hedatzea.
- 2.1.7. Erreferentziazko barne-medikuntzako medikuaren figura zabaltzea eta horri jarraipena ematea.
- 2.1.8. Medikazioaren bateragarritasuna eta berrikuspena handitzea ESI osoan, bai ospitale-zerbitzuetan, bai LMAUetan.

Helburu espezifikoak	Ekintzak
2.2. Gizarte-, osasun- eta (haur eta gazteei dagokienez) hezkuntza-sektoreen arteko koordinazioa indartzea, gaixotasun kronikoak dituztenei arreta egokia emango zaiela bermatzeko, haien adina edozein dela ere.	2.2.1. Gaixo kronikoaren eta eriondoaren ospitale-arretarako ohe kopurua dimentsionatzea erreferentziazko egonaldi ertaineko unitateetan, eta, horretarako, azpiakutuen oheak kudeatzeko plan bat egitea. 2.2.2. Historia kliniko sanitarioa eta soziosanitarioa integratzen laguntzea, gizarte-zerbitzuekiko lankidetzan errazteko, bereziki. 2.2.3. Laguntza klinikozko aholkuak eta batzorde soziosanitarioak bultzatzea, laguntza-eremuen eta inplikaturako agente soziosanitarioen arteko koordinazioa indartzeko, egoitza soziosanitarioekiko koordinazioa hobetuta. 2.2.4. Gizarte Baliabideen Mapa definitzea. 2.2.5. Estrategiak bultzatzea zaurgarritasun bereziko egoeran dauden pertsonen arreta hobetzeko. 2.2.6. Pediatriako paziente kronikoen alta ondoko zainketen programak bultzatzea.
2.3. Paziente kronikoaren arreta hobetzea, eta telemonitorizazioaren eta telelaguntzaren eskaintza aztertzea eta optimizatzea, nola osasun-premiei aurre egiten laguntzeko pazienteei, hala laguntza emateko lana errazteko profesionalei.	2.3.1. Telemonitorizazioak hautemandako deskonpentsazio-egoeretan etxeko ospitalizazioa aurrera eramatea. 2.3.2. Telefarmazia sustatzea, eta urruneko arretarako eta paziente kronikoen etxera sendagaiak eramateko eredu bat ezartzea. 2.3.3. Arabako Espetxearekin telemedikuntzari eustea eta indartzea.

3.

ildo
estrategikoa

Santiago Ospitalea (XIX. mendaren amaiera)

Osakidetzaren bikaintasuna lortzeko funtsezko elementuak izatea humanizazioa, balioan oinarritutako arreta, zainketen bikaintasuna, kalitatea eta pazienteen segurtasuna

Bikaintasuna lortzeko ahaleaginean, gure hirugarren ildo estrategikoan murgilduko gara. Ildo horrek bermatzen du Osakidetzak herritarrei kalitatezko osasun-arreta emateko duen misioa.

Humanizazioa ez da kontzeptu hutsa, gure erakundean errotutako konpromisoa baizik. Paziente bakoitza pertsona bakar gisa tratatzen ahalegintzen gara, bere behar fisiko eta emozionalak aitortuz.

Balioan oinarritutako arreta da ildo horren beste oinarrietako bat. Horrek esan nahi du etengabe neurtu eta hobetu behar dela gure tratamendu eta zerbitzuen kalitatea, esku-hartze bakoitzak paziente bakoitzaren

osasunean eta ongizatean eragin positiboa izango duela bermatuz.

Zaintzaren bikaintasuna kalitate handiko arreta emateko dugun dedikazioan islatzen da. Gure langileen prestakuntzan eta jardunean estandarrik handienei eusteko konpromisoa hartzen dugu, paziente bakoitzak bere arretaren etapa bakoitzean aparteko zaintzak jasotzen dituela ziurtatuz.

Kalitatea eta segurtasuna ezin hautsizko konpromisoak dira. Horregatik, segurtasuna arau izango duen ingurune bat sortzen ahalegintzen gara, non paziente bakoitzak konfiantza izan dezakeen eskaintzen ditugun zerbitzuen kalitatean eta osotasunean.

Helburu espezifikoak	Ekintzak
3.1. Arabako ESlaren 2022-2026 aldirako Humanizazio Plana garatzea.	3.1.1. Arabako ESlaren 2022-2026 aldirako Humanizazio Plana zabaltzea, eta plan horren 6 dimentsioetako bakoitzeko gutxienez 3 ekintza ezartzea. 3.1.2. Arabako ESko Humanizazio Batzordea sortzea eta humanizazio-erreferenteak izendatzea.
3.2. Balioan Oinarritutako Arreta hedatzea, pazienteei benetan axola zaizkien osasun-emaitzak neurtzera eta emaitza horiek lortzearen kostuarekin duen loturara bideratutako estrategia baten bidez.	3.2.1. Erakundearen Aginte Taula bat sortzea, balioan oinarritutako jardun klinikokoa. 3.2.2. Profesionalak eta pazienteak trebatzea eta sensibilizatzea, balio-kultura sustatzeko. 3.2.3. Zerbitzu/LMAU bakoitzean gutxienez hiru osasun-emaitza definitzea eta ezagutaraztea.
3.3. Zainteten bikaintasuneko estrategiarekin jarraitzea eta indartzea: BPSO estrategia (Zaintetetan Jardun Egokiak Ezartzeko Programa, Zainteten Bikaintasunarekin Konprometitutako Zentroetan).	3.3.1. BPSOren zainteten bikaintasuneko estrategiarekin jarraitzea eta hedatzea.

Helburu espezifikoak	Ekintzak
3.4. Pazientearen Segurtasunaren kultura sustatzea ESIan, eta Pazientearen Segurtasun Planean jasotako ekintza-ildoen jarraipena bermatzea, segurtasun-gorabeherak ahalik eta gehien murrizteko asmoz.	3.4.1. Segurtasun korporatiboaren estrategia Arabako ESIra egokitzea. 3.4.2. Jardun egokiak sustatzea Pazientearen Segurtasun Planean zehaztutako laguntza-prozeduretan. 3.4.3. PSJISaren erabilera sustatzea. 3.4.4. Erreklamazioen bidez segurtasun-gorabeherak detektatzen jarraitzea eta PEAZk horietan parte hartzea. 3.4.5. Transfusio Segurtasuneko Plana idaztea, ESIan sistema homogeneizatuz. 3.4.6. Kontingentzia Informatikoko Plana zabaltzea, ebaluatzea eta berrikustea.
3.5. Etengabeko hobekuntza sartzea asistentziaren kalitatearen bikaintasunaren bilaketan, kalitatea hobetzen lagunduko duten ekintza zehatzak sartuz.	3.5.1. Irisgarritasuna hobetzea, atzerapen kirurgikoak, kanpo-kontsultak eta proba osagarriak murriztuz. 3.5.2. Proben emaitzak jakinarazteko atzerapenak murriztea. 3.5.3. Proba osagarrien eskaera optimizatzeko ekintzak sustatzea.

4.

ildo
estrategikoa

Billoda

Gobernantza-eredua sendotzea, jasangarritasuna, emaitza onenak eta kontu-ematea berma ditzan, egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko

Jasangarritasuna bermatzeko dugun betebeharrean, ildo estrategiko hori funtsezko zutabea da gaurko eta biharko erronkei aurre egiteko dugun gaitasunari eusteko, ematen dugun urrats bakoitzean emaitzarik onenak eta kontu-ematea ziurtatuz.

Arabako biztanleriaren behar aldakorrei erantzuteko egokitu eta eboluzionatzeko gai izango den gobernantza-eredu sendoa finkatu nahi dugu.

Jasangarritasuna gure estrategiaren funtsezko elementuetako bat da. Berebiziko garrantzia du osasun-arretarako beharrezkoak diren baliabideak epe luzera eskura izatea ziurtatzeak, etorkizuneko belaunaldiek osasun-sistema sendo eta fidagarria izan dezaten. Gure gobernantza-eredua finkatzeak aukera ematen digu Osakidetzaen jasangarritasuna bermatzeko neurriak planifikatzeko eta hartzeko.

Helburu espezifikoak	Ekintzak
4.1. Asistentzia-gaitasuna optimizatzea eta antolamendua hobetzea , behar berrietara egokituz (Asistentzia Optimizatzeko Plana).	4.1.1. Ustekabeko aurkikuntzen zirkuitua definitzea Arabako ESIko espezialitate guztietan. 4.1.2. Ospitaleratze eta alta emateko prozesua optimizatzea. 4.1.3. Oheak kudeatzeko prozesua hobetzea.
4.2. Efizientzia hobetzea kudeaketa-eremu guztietan : asistentziala, ekonomiko-finantzarioa eta pertsonena.	4.2.1. JAKEHko estrategia berrantolatzea eta berraktibatzea, Zerbitzu/LMAU bakoitzeko urteko jarduerak zehaztuz, «Ez egin» programaren barruan, «osasun-arloko desinbertsioak» sustatzeko. 4.2.2. Paziente/prozesu/gaixotasun bakoitzeko kostuaren informazio-sistema ezartzea, eta zerbitzu bakoitzeko gastuaren txostena hileroko ematea. 4.2.3. Administrazio-kontratazioko prozedurak hobetzea, ingurumen-irizpideak barne hartuz. 4.2.4. Baimen informatuen sinadura digitala bultzatzea.
4.3. Gizarte Erantzukizunak ESIan duen eragina eta 2030 Agendaren helburuetan (GJH) duen eragina indartzea, ingurumen-estrategia sendotuz.	4.3.1. Erantzukizun Sozial Korporatiboko Memoria egitea. 4.3.2. ESIko eraikin guztien energia-ikuskaritza egitea, karbono-aztarna kalkulatzeko eta erregistratzeko. 4.3.3. ESI isila bultzatzea, ebakuntza-geletan eta ospitaleratze-solairuetan nabarmenduz. 4.3.4. Genero-ikuspegia sistematikoki txertatzea prozesu-asistentzialak diseinatzean eta emaitzak aztertzean. 4.3.5. Gizartearekiko harremanak hobetzeko ekintzak abian jartzea.

Helburu espezifikoak	Ekintzak
4.4. Sistemaren efizientzia hobetzea eta, horretarako, azpiegiturak eta teknologia eguneratzea eta modernizatzea.	4.4.1. Arabako ESiko gunek, azpiegitura, ekipamendu, instalazio, obra eta berrikuntzen Plan Zuzentzailea garatzen jarraitzea. 4.4.2. Biltegi bateratu baten proiektua egitea. 4.4.3. Ekipamendu teknologikoen inbentarioa eguneratzea. 4.4.4. Kontsulta- eta proba-eskaeren kudeatzailea ospitaleko zerbitzu guztietan bultzatzea eta hedatzea. 4.4.5. ESiko hitzorduetarako eta izapideak ebazteko leihatila bakarraren eredurantz aurrera egitea. 4.4.6. Kontsulten eta proba osagarrien plangintza osoa eta eguneratua ezartzea, gutxienez 3 hilabete lehenago agenda osoak irekita. 4.4.7. E-Osabide, Osabide AP, Osabide Global eta Presbideri buruzko tutorialak egitea, eta intranetean eskegitako eskuliburuak eta dokumentuak berrikustea eta zabaltzea.
4.5. Jasangarritasunera, kontu-ematera eta osasun-emaizta onenak lortzera bideratutako kudeaketa-eredu korporatiboa sendotzea.	4.5.1. Urteko Kudeaketa Plana egitea zerbitzu/unitate bakoitzeko, eta aldizkako bilerak egitea haren jarraipena aztertzeko. 4.5.2. Arabako ESiko Prozesuen Mapa eguneratzea. 4.5.3. ESIan jardun asistentziala hobetuko duten ebaluazio-ereduak sustatzea. 4.5.4. Jardun Egokien inbentarioa egitea, lankidetzaz sustatzeko.
4.6. ESlaren barneko zein kanpoko interes-taldeekin duen harremana sendotzea, horiek gobernu onean sartzeko.	4.6.1. ESIaren interes-taldearen mapa ezartzea. 4.6.2. Hirugarrenen harremanen esparrua definitzea eta aliantzen eta hornitzaileen kudeaketa sistematizatzea. 4.6.3. ESIan Boluntariora Plana bultzatzea.



ildo
estrategikoa

Osasun-arloko emaitzekin eta taldean lan eginez ezagutza sortzearekin konprometitutako pertsonak

Osasun-arloko emaitzarik onenak etengabe bilatzean, bosgarren ildo estrategikora iritsi gara, Arabako ESlaren arima adierazten duena; izan ere, aitortzen du pertsonak, haien konpromisoak eta taldean lan egiteko gaitasunak bultzatzen dutela gure arrakasta.

Gure erakundea osatzen duten pertsonak konpromisoa dute Arabako biztanleriaren osasuna hobetzeko. Konpromiso horren ondorioz, ahalegin nekaezina egiten da ahalik eta arretarik onena emateko eta osasun-erronkei eraginkortasunez heltzeko beharrezkoa den ezagutza sortzeko.

Berrikuntza eta ikerketa funtsezkoak dira osasun-arretan aurrera egiteko. Ikerketa eta etengabeko ikaskuntza funtsezko balioak izango diren ingurunea sustatzen dugu.

Talde-lana, diziplina anitzeko ikuspegi batetik, ezinbestekoa da osasun-erronkei aurre egiteko. Arabako ESlan, hainbat arlotako profesionalen arteko lankidetzak sustatzen dugu, paziente bakoitzak arreta integrala eta pertsonalizatua jasotzen duela bermatzeko.

Helburu espezifikoak	Ekintzak
5.1. Giza baliabideen egitura egokitzea egungo eta etorkizuneko behar asistentzialetara , antolaketa-formula berrien eta lanbide-profil berrien bidez.	5.1.1. Erdi-mailako kargudunen eta buruzagitzen hautaketan gardentasuna sustatzea, memoriak eta proiektuak jendearen eskura jarritz. 5.1.2. ESlan erreferentziazko eredua sortzea arlo guztietan, erreferentziazko profesionalak egon daitezen.
5.2. Arabako ESlaren lidergo-eredu propioa zehaztu eta bultzatzea.	5.2.1. ESlan lidergoari buruzko prestakuntza-plan bat sortzea, egungo eta etorkizuneko liderrak detektatuz. 5.2.2. Kudeaketa sanitarioari eta pertsonen kudeaketari buruzko prestakuntza-plan bat egitea.
5.3. Pertsonen parte-hartzea eta entzute aktiboa ahalbidetzen duten tresnen erabilera sistematizatzea, haien eta erakundearen beraren gogobetetzea eta konpromisoa hobetze aldera.	5.3.1. Pertsonen Zuzendaritza profesionalei hurbiltzea, <i>Lagundu, Eskuan</i> eta antzeko tresnen bidez. 5.3.2. Batzorde kliniko guztiak berrikustea eta eguneratzea, eta Kalitate Batzorde Nagusiaren eta Humanizazio Batzordearen sorrera bultzatzea, Zuzendaritzaren lanari laguntzeko eta aholkuak emateko organo gisa. 5.3.3. Profesionalek batzordeetan eta lantaldeetan parte har dezaten sustatzea. 5.3.4. Gogobetetzea neurtzeko eredua definitzea, profesionalei inkestak egitea azpimarratuz.
5.4. Aintzatespenaren kultura garatzea, konpromisoa eta parte-hartzea bultzatuz.	5.4.1. ESlko profesionalentzako Aintzatespen Plan bat sortzea. 5.4.2. Urteko Aintzatespen Jardunaldi bat egitea hainbat arrazoiengatik, balioetan eta helburuen lorpenean oinarrituta.

Helburu espezifikoak	Ekintzak
5.5. Ezagutza kudeatzeko eredu bat garatzea, pertsonen eta taldeen gaitasunak indartuko dituen, erakundearen barruan talentua atxikitzea eta sustatzea ziurtatuko duena eta euskara sustatuko duena.	5.5.1. Zeharkako ezagutza kudeatzeko eredu bat definitzea, arlo espezifikoetarako barneko irakasleen gordailu bat sortuz. 5.5.2. Euskararen erabilera bultzatzea, Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko III. Planarekin bat etorriz. 5.5.3. ESIan Talentuaren Mapa sortzen aurrera egitea. 5.5.4. Intranetaren erabilera sustatzea, profesionalekin komunikatzeko tresna gisa. 5.5.5. Barne-ikaskuntzako inguruneak sortzea, jardun kliniko onak partekatzea eta euskara erabiltzeko taldeak bultzatzea. 5.5.6. Lanpostuko prestakuntza bultzatzea eta egituratzea. 5.5.7. ESIko langileen argitalpen zientifikoak ikusaraztea. 5.5.8. Irakaskuntzaren Kalitatea Bermatzeko Plana mantentzea eta eguneratzea.
5.6. ESIa lan-ingurune erakargarri eta osasungarria sustatzen duen erakundea izatea, pertsonen zaintzaren bidez, ongizatea eta berdintasuna lortzeko.	5.6.1. Harrera Plan Integrala eguneratzea ESIan eta zerbitzu/ LMAU bakoitzean. 5.6.2. Berdintasunaren kultura bultzatzea (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Osakidetza I. Plana). 5.6.3. Aniztasun Plan bat osatzea.
5.7. Komunikazioa hobetzea.	5.7.1. Arabako ESIaren Komunikazio Plana garatzea eta komunikazio-zerbitzuen zorroa ezartzea. 5.7.2. Tresna digitalen erabilera bultzatzea, paziente/ herritarrei zein profesionalei informazio garrantzitsua hurbiltzeko.

6.

ildo
estrategikoa



Gasteizko antzinako hozkailua

Berrikuntza eta ikerketa, osasuneko balio-sortzaile gisa

Osasunaren erronkei aurre egiteko ikuspegi berritzaile eta sortzaileak aurkitzeko gure misioan, gure ildo estrategikoetako seigarrena azalduz amaitzen dugu, non berrikuntzak eta ikerketak funtsezko zeregina betetzen duten herritarren osasun-arreta bermatzeko.

Abangoardiako teknologiak ezartzen direnetik arreta-eredu berriak sortzen diren arte, berrikuntzak aukera ematen digu irtenbide eraginkorragoak eskaintzeko arabarren osasuna hobetzeko.

Ikerketa-giro bat sustatzen dugu, non osasun-arloko profesionalek eta

zientzialariek osasun-arloko galdera konplexuenei erantzunak bilatzen lagun dezaketen, ezagutzaren mugak zabalduz eta eskaintzen dugun arretaren kalitatea hobetuz.

Osasunean balioa sortzea errotutako konpromisoa da. Ez dugu berrikuntza eta ikerketa beren kabuz bilatzen, baizik eta gure pazienteei eta Arabako komunitate osoari benetako balio neurgarria emateko bitarteko gisa.

Helburu espezifikoak	Ekintzak
6.1. Berrikuntza eta ikerketa bultzatzea , osasun-arloko egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko ezinbesteko tresna gisa, sarean lan egiteko estrategia korporatiboarekin bat etorriz.	6.1.1. Barruko eta kanpoko eragile guztiak inplikaturako dituen berrikuntza- eta ikerketa-kultura bultzatzea. 6.1.2. Bioaraba Ollarekin lankidetzan aritzea, bideratzaile gisa, proiektu berriak garatzeko. 6.1.3. Arabako ESla <i>Nursing Research Challenge</i> proiektura batzea.
6.2. Osasun-arloko ikerketa-eta berrikuntza-sare bat lortzea , profesionalen talentua dela-eta aitortua.	6.2.1. Eremu eta erakunde guztietako profesionalen arteko berrikuntza- eta ikerketa-koordinazioa sustatzea, eta pertsonen berrikuntzan eta ikerketan duten gaitasuna eta ezagutza garatzea.
6.3. Eraldaketa digitala bultzatzea.	6.3.1. Panel klinikoaren eta <i>"Time-Line"</i>-aren erabilera sustatzea. 6.3.2. ESla dermatoskopia bultzatzea. 6.3.3. Prozesu asistentzialetan laguntzeko informazio-sistemak bultzatzea. 6.3.4. Bideo-kontsulten programa gidatzea.
6.4. Berrikuntza- eta ikerketa-ekosistemaren potentziala erabiltzea osasunean balioa sortzeko.	6.4.1. Ikerketa eta berrikuntza indartzea, biztanleriaren ikuspegitik. 6.4.2. Osasunean inplikaturako taldeekin eta sektoreekin proiektuak partekatzea.

Helburu espezifikoak

Ekintzak

6.5. **I+G+Bko emaitzak jardun asistentzialera transferitzen** aurrera egitea, sistemaren beharrei erantzunez eta ESIak ematen duen arretaren balioa handituz (Emaitzak - Ebaluazioa).

6.5.1. Interes-eremuak definitu eta zabaltzea.

6.5.2. Balioetara bideratutako berrikuntza-esperientziak ezagutzeko eta partekatzeko sistema bat garatzea.

6.5.3. Herritarrei eta osasun-eragileei ikerketaren eta berrikuntzaren emaitzak ezagutaraztea.

6.5.4. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko gainerako eragileekiko koordinazioa indartzea.



Glosarioa

OA:	Ospitaleko Arreta	OEA/OBI:	<i>Oracle Analytics Server / Oracle Business Intelligence</i>
LMA:	Lehen Mailako Arreta	GJH:	Garapen jasangarrirako helburuak
BPSO:	<i>Best Practice Spotlight Organization</i> (Zainketetan Jardun Egokiak Ezartzeko Programa, Zainketen Bikaintasunarekin Konprometitutako Zentroetan)	ESI:	Erakunde Sanitario Integratua
IKBE:	Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoa	API:	Arreta Plan Indibidualizatua
BGBK:	Biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa	PP:	Plangintza Partekatua
BFE:	Barrutiko fakultatibo espezialista	ESK:	Erantzukizun Sozial Korporatiboa
AUO:	Arabako Unibertsitate Ospitalea	PEAZ:	Paziente eta Erabiltzaileen Arreta Zerbitzua
I+G+B:	Ikerketa + Garapena + Berrikuntza	PSJIS:	Pazientearen segurtasunaren arloan jakinarazpenak egiteko eta ikasteko sistema
BG:	Bihotz-gutxiegitasuna	LMAU:	Lehen Mailako Arretako Unitatea
JAKEH:	Jarduera Asistentzial eta Klinikoaren Egokitzenaren Hobekuntza	KSU:	Kudeaketa Sanitarioko Unitatea
KAE:	Kudeaketa aurreratuaren eredua	AB:	Aurretiazko Borondateak



Santa Katalina lorategi botanikoa

Elkarlanean aritu dira

Aguirre Orbegozo, Oskia Miren. Arabako ESiko Ezagutza Kudeatzeko Unitateko arduraduna.

Alejandro Rodríguez, Purificación. Arabako ESiko KSUko Kalitate Unitateko teknikaria.

Almaraz Ruiz de Eguilaz, María José. Arabako ESiko Medikuntza Aringarriko unitateburua.

Álvarez Morezuelas, María Natalia. Arabako ESiko KSUko Kalitate Unitatea Antolatze goi-mailako teknikaria.

Álvarez Rubio, Manuel. Arabako ESiko Digestio Aparatuko Zerbitzuko atalburua.

Bárez Hernández, Enrique Manuel. Arabako ESiko Anestesiologia, Bizkortze eta Mina Tratatze Zerbitzuko Minaren Unitateko atalburua.

Bello Gutiérrez, Verónica. Arabako ESiko Larrialdi Zerbitzuko BFE.

Blanco Gutiérrez, Antonio José. Arabako ESiko KSUko Kalitate Unitateko administrari laguntzailea.

Blanco Real, Ignacio Fernando. Arabako ESiko Anestesiologia, Bizkortze eta Mina Tratatze Zerbitzuko atalburua.

Boyano López, Teresa. Arabako ESiko KSUko Kalitate Unitateko administrari laguntzailea.

Calvo Alen, Jaime. Arabako ESiko Erreumatologiako zerbitzuburua.

Calvo Carrasco, Diana. Arabako ESiko Erizaintzako zuzendaria.

Calvo Gainzarain, Marian. Arabako ESiko Arreta Integratuko Zuzendaritzako zuzendariorde medikoa.

Campo Cimarras, Eugenia. Arabako ESiko Kirurgia Orokorreko eta Digestio Aparatuko zerbitzuburua.

Arabako ESiko Etika Asistentzialeko Batzordea

Cuesta García, María Esther. Arabako ESiko Zuzendaritza Medikoko zuzendariorde medikoa.

Díaz Gutiérrez, Judith. Arabako ESiko KSUko Kalitate Unitateko BFE.

Encinar Martín, Fernando. Arabako ESiko Ekonomia eta Finantzako zuzendaria.

Escalante Martín, Maite. Arabako ESiko Digestio Aparatuko Zerbitzuko BFE.

Estébanez Carrillo, María Mercedes. Arabako ESiko KSUko Kanpoko Kontsultak eta Proba Osagarriak Zitatze Unitateko arduraduna.

Fariñas Pan, Juan Carlos. Arabako ESiko Ekonomia eta Finantzako zuzendariordea.

Fernandez Ibáñez, Eduardo. Arabako ESiko Alergologiako zerbitzuburua.

García de Garayo Díaz, Silvia. Arabako ESiko KSUko Informazio Sistemen Unitatea Antolatze goimailako teknikaria.

García Regata, Óscar. Arabako ESiko Zuzendaritza Medikoko zuzendariorde medikoa.

García Sardón, Rafael. Arabako ESiko Otorrinolaringologiako zerbitzuburua.

García Vega, Ángel. Arabako ESiko Larrialdi Zerbitzuko atalburua.

González-Pinto Arrillaga, Ana María. Arabako ESiko Psikiatriako zerbitzuburua.

Grandoso Ferreras, Miguel Ángel. Arabako ESiko Profesionalen Arretarako Unitateko Karteldegien Ataleko arduraduna.

Gubía López, Ana María. Arabako ESiko KSUko Programazio Kirurgikoaren Unitatearen arduraduna.

Guinea De Castro, José María. Arabako ESiko Hematologia eta Hemoterapiako zerbitzuburua.

Gutiérrez Mendiguren, Félix María. Arabako ESiko KSUko Ospitalizazio eta Larrialdietako Unitateko arduraduna.

Haro Romero, María Sonia. Arabako ESiko Langileen Zerbitzuko Plantillako eta Egiturako teknikaria.

Hijona Muruamendiaraz, Lander. Arabako ESiko zuzendari medikoa.

Ibarrondo Bastera, Cecilia. Arabako ESiko Komunikazioko atalburua.

Iturricastillo Pérez, María del Carmen. Arabako ESiko Anestesiologia, Bizkortze eta Mina Tratatzeko zerbitzuburua.

Jaras Bartolomé, Juan José. Arabako ESiko Erizaintzako Zuzendaritzako zuzendariordea.

Lara Marcos, Patricia. Arabako ESiko KSUko Kalitate Unitateko Pazienteen Segurtasuneko Erizaintzako gainbegiralea.

Larrañaga Varga, Edurne. Arabako ESiko Langileen Zerbitzuko Nominen Ataleko arduraduna.

Logroño Ejea, Marga. Arabako ESiko Anestesiologia, Bizkortze eta Mina Tratatzeko Zerbitzuko BFE.

López de Robles Díaz de Gamarra, Javier. Arabako ESiko Pertsonen Zuzendaritzako goimailko teknikari juridikoa.

Manzano Ramírez, Alberto. Arabako ESiko Medikuntza Intentsiboko Kudeaketa Klinikoko unitateburua.

Marín Vitoria, Oihane. Arabako ESiko Pertsonen Zuzendaritzako idazkaria.

Martín Díaz, Dorleta Sofía. Arabako ESiko Neurokirurgiako eta Zainketa Aringarrietako gainbegiralea.

Martínez García, Elena. Arabako ESiko Errehabilitazioko zerbitziburua.

Martínez Martínez, Carlos. Arabako ESiko Farmaziako zerbitziburua.

Mongelos Ramírez, Jesús María. Arabako ESiko KSUko Osasuneko Informazio Sistemen Unitateko arduraduna.

Montiano Jorge, Juan Ignacio. Arabako ESiko Pediatriako zerbitziburua.

Orive Calzada, Aitor. Arabako ESiko Digestio Aparatuko zerbitziburua.

Orruño Aguado, Jon. Arabako ESiko Kardiologiako zerbitziburua.

Pastora Mirón, Virginia. Arabako ESiko Pertsonen Zuzendaritzako goi-mailko teknikari juridikoa.

Pedrosa Rodero, Francisco Javier. Arabako ESiko Langileen zuzendaria.

Pérez Ramos, José María. Arabako ESiko zuzendari-gerentea.

Pérez Sanz, Iñaki. Arabako ESiko Langileen Zerbitzua Kontratatzeko atalburua.

Prada Rodríguez, Koldo. Arabako ESiko Giza Baliabide zerbitziburua.

Prieto Porras, Andrea. Arabako ESiko KSUko Kalitate Unitateko Pazienteen Segurtasuneko Erizaina.

Pujana Uriarte, María José. Arabako ESiko Pertsonen Zuzendaritzako zuzendariordea.

Quintana Basterra, Ainhoa. Arabako ESiko farmakologo klinikoa.

Ramírez Samaniego, Lourdes. Arabako ESiko Erizaintzako Zuzendaritzako zuzendariordea.

Regalado De Los Cobos, José. Arabako ESiko Etxeko Ospitalizazioko zerbitziburua.

Rodríguez Lapatza, Kontxi. Arabako ESiko Profesionalen Arretarako Unitateko atalburua.

Romeo Ollora, Jorge. Arabako ESiko Arreta Integratuko zuzendaria.

Sánchez Bernal, Rafael. Arabako ESiko Kudeaketa Sanitarioko Unitateko zerbitziburua.

Sánchez Goitia, Maider. Arabako ESiko Endokrinologia eta Nutrizioko Zerbitzuko atalburua.

Sánchez Zugazua, Jaione. Arabako ESIko KSUko Kalitate Unitateko gainbegiralea.

Santander Madinabeitia, Koldobika. Arabako ESIko Pertsonen Zuzendaritzako goi-mailko teknikari juridikoa.

Sayas Ruiz de Gauna, Susana. Arabako ESIko KSUko Paziente eta Erabiltzaileei Arreta Emateko Zerbitzuko arduraduna.

Serrano De Lucas, Laura. Arabako ESIko farmakologo klinikoa.

Soto Iglesias, Ana. Arabako ESIko Anestesiologia, Bizkortze eta Mina Tratatzeako Zerbitzuko atalburua.

Tobalina Larrea, Ignacio. Arabako ESIko Medikuntza Nuklearreko zerbitzuburua.

Ulibarri Arganda, José Ignacio. Arabako ESIko KSUko Kalitate Unitateko administrari laguntzailea.

Urcola Carrera, Javier Aritz. Arabako ESIko Oftalmologiako Kudeaketa Klinikoko unitateburua.

Zubizarreta Urcelay, Igone. Arabako ESIko Arreta Integratuko Zuzendaritzako Erizaintzako ondokoa.



Osakidetza

ARABAKO
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
ARABA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD